

**BILBOKO**  
HIRUHILEKO  
KOIUNTURA  
TXOSTENA  
**2025**

**B**ilbao Observatorio

## LABURPENEA

2025 hasiera Trumpen administrazioak markatu du. Azpimarratzekoa da muga-zergen politika, muga-zerge berriak iragarri baitituzte herrialde eta produktu guztientzat eta eraginpeko herrialdeek emandako erantzunen arabera (atzeratzeak eta deskontuak) doitzen joan dira. Horrekin guztiarekin, zalantzagarritasunak (bereziki, apirilaren 2tik aurrera) burtsan aldakortasun handia sortu zuen. Ustez, aldakortasun hori apaltzen joan daiteke, AEBren eta Txinaren artean merkataritza-negoziazioak<sup>1</sup> hastearekin batera.

Urte-hasiera Trumpen administrazioaren berriek markatu dute

Aurrekoa gorabehera, kaltea eginda dago: NDFk aitortzen du egoera "*kritikoa dela politikak aldatzen ari diren une batean*". Une honetan, nagusi da alde bakarreko muga-zergen politika disruptibo horren eragina (asmoa maximo historikoak izango lituzketen tarifak aplikatzea da) eta ekonomia-jardueran inpaktu negatibo argia sortzen du horrek. Hala, erakundeak kalkulatu du munduko ekonomia % 2,8 eta % 3,0 haziko dela 2025ean eta 2026n, eta aurreikuspenak (2025eko urtarrilekoak) 5 eta 3 hamarren gutxitu ditu.

NDFk 2025eko eta 2026ko ekonomia-hazkundera gutxitu du eta % 3 ingurukoa izango da

Beherazko doikuntza orokorra da AEBri aplikatutako murrizketa handiagoarekin (9 eta 4 hamarren 2025ean eta 2026an) eta bere ekonomia-hazkunderako aurreikuspena % 2tik beherakoa da. Beste alde batetik, Eurogunerako doikuntza txikiagoa da (2 hamarren urte bietan) eta behin-behineko egoera % 1 ingurukoa izango da hurrengo biurtekoan. Azpimarratu beharra dago beherapen hori Europako ekonomia handi guztietarako izango dela Espainiarako ez ezik; erakundeak aurreikuspenak hobetu ditu Espainiarentzat, zehazki, % 2,5era arte eta % 1,8ra arte 2025ean eta 2026an.

Hurrengo hilabeteetan argituko da nolakoa izango den Trumpen administrazioak sinesgarritasuna galdu izanak, muga-zergekin inflazioan eragindako barne-inpaktuak eta kontsumitzaileen jokaerak<sup>2</sup> oztupoak ezarri dituztelako sortuko den egoera, eta nola nabaritu den hori guztia atzerapen ekonomiko posiblean, gainerako ekonomietan sor daitekeen "olio-orbana" deritzon efektuarekin.

Zalantzagarritasun maximoa, are negatiboagoa izan daitekeen efektuarekin

Eusko Jaurlaritzak 2025ean egindako aurreikuspenetan —kontuan hartuta nazioarteko egoera arrarotuta dagoela eta urtea baldintzatuko duela— kalkulatu da euskal ekonomia % 2,1 haziko dela 2025ean hiru faktore hauetan oinarrituta: barne-eskariaren sustapena, Espainiako aurreikuspen onen garrantzia eta merkatu estatubatuarrekiko esposizio erlatibo txikiagoa nazioarteko osagaian.

Aurreikuspenen arabera, euskal ekonomia % 2,1 eta % 1,8 haziko da 2025ean eta 2026an

2025eko lehen datuek baieztatu egin dute enpleguaren ibilbidea oso positiboa izan dela eta 2008ko gehiengo historikoak gainditu dira. Bilbon 199.043 afiliatu zeuden Gizarte Segurantzaren martxoan eta zifra ia-ia errepikatu egin zen urte bukaeran (199.081) eta urte arteko hazkundera % 3,8koa izan zen. Eraitza horren arrazoiak izan dira, alde batetik, araubide orokorreko afiliazioen dinamismoa (+% 4,6) eta, beste alde batetik, autonomoen araubidearen hazkunde txikia (% 0,4). Etxeko enpleguak atzera egin zuen (-% 3,9).

Hiribilduan 199.043 afiliatu zeuden (+% 3,8 urte arteko tasan)

Erregistratutako kontratuak asko gutxitu ziren urte hasieran eta azken biurteko kontratazio-zifrarik txikiena erregistratu zen. Zehazki, hiribilduko biztanleek 25.774 lan-kontratu berri sinatu zituzten (-% 3,5 urte artean). Emakumeen kontratuak gehitu egin ziren (+% 3,2), baina horrek ez zuen konpentsatu gizonen kontratuen jaitsiera (-% 10,0).

<sup>1</sup> Akordio horiek lortzeko 2 eta 3 urte inguru iraun dezake eta onesteko beharrezkoa izango da herrialde-bazkide bakoitzak barne-izapideak egitea.

<sup>2</sup> AEBko kontsumitzaileen sentimendu-adierazlea apirilaren 52,2 puntukoa izan zen, 1952tik erregistratu den laugarren daturik okerrrena. Azken 20 urteetan, adierazle horren batezbestekoa 80 puntukoa izan da (Michigango Unibertsitatea, 2025eko apirilak 25).

21.336 langabe erregistratu ziren. Hau da, urte artean % 2,9ko murrizketa eta 627 langabe gutxiago. Beherantz doan profila da eta adin-talde guztietan joera berbera da, gazteenen (16-24 urte) artean ez ezik, pixka bat gora egin baitu. Adierazle horrek hiruhileko arteko % 1,3ko hazkundera du, abenduko hilabete bat oinarri hartuta zenbatzen baita (21.067). Hilabete hori, 2022koarekin eta 2023koarekin batera, 2009tik (22.685) erregistratutako urte-bukaerako hiru emaitza onenen artean egon zen.

Erregistratutako langabeziak behera egin zuen urteko lehen hiruhilekoan (-% 2,9 urte arteko tasan)

Urteko lehen hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuek diote Bilboko egoiliarren artean 190,3 mila pertsona zeudela aktibo. Horietatik 168,0 mila lanean eta 22,3 mila langabe. Ondorioz, kalkulaturako enplegu-tasa %% 52,9koa da eta langabezia-tasa % 11,7koa.

Enplegu-tasa % 52,9koa da eta langabezia-tasa % 11,7koa

Urteko laugarren hiruhilekoko datuek ekitaldiko joera baieztatu dute. Agerikoak dira txikizkako merkataritzaren eta ibilgailuen salmenten eta konponketen dinamismoa eta handizkako merkataritzak erregistratutako atzerapena. Hala, merkataritza-sektoreko salmentak gelditu egin dira 2024an (+% 0,2 eta -% 0,1 prezio arruntetan eta konstanteetan), handizkako merkataritzaren emaitza negatiboak oztopatuta (-% 3,2 prezio arruntetan eta konstanteetan). Kontrara, gorakada handia izan dute ibilgailuen salmentek eta konponketek (+% 13,0 eta +% 11,7) eta txikizkako merkataritzaren jarduerak (+% 3,8 eta +% 2,8).

Txikizkako merkataritzako salmentak gehitu egin dira (+% 3,8 eta +% 2,8 prezio arruntetan eta konstanteetan), baita ibilgailuen salmentak eta konponketak ere (+% 13,0 eta +% 11,7)

Bizkaiko merkataritza gune handietako salmenten hobekuntza geratu egin da 2025eko lehen hiruhilekoan (+% 2,4 prezio arruntetan), eta jardueraren benetako hazkundera pixka bat negatiboa izan da (-% 0,3 prezio konstanteetan). Halaber, enpleguaren hobekuntza nahiko apala izan da (+% 0,3), azken hiru hiruhilekoetako aurrerapenik txikiena, hain zuzen ere.

Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentak gelditu egin dira lehen hiruhilekoan

Urte hasieran 3.395 ibilgailu berri matrikulatu ziren Bizkaian. Urte arteko hazkunde handia izan arren (+% 3,0), aurreko hiruhilekoko zifra altutik urruti geratu da (4.220; -% 19,5); azken horretan, 4.000 unitate baino gehiago saldu ziren eta 2020tik ez zen horrelakorik gertatzen (4.441 saldu ziren laugarren hiruhilekoan). Badirudi finkatu egin dela matrikulazio berrien hobekuntza-ibilbidea, partikularren segmentuak lagunduta (+% 3,9); azken horrek, lurraldean matrikulatzen diren 10 ibilgailutik 7 ematen ditu (% 69,8) eta enpresen eta besteen segmentuaren hobekuntza gehitzen zaio (+% 1,0).

... 3.395 ibilgailu berri matrikulatu dira (+% 3,0 urte arteko tasan)

Bilboko hotel-jarduerak urte hasieran (urtarriletik martxora) urte arteko hazkundera izan zuen bidaiari-kopuruan (237.315; +% 7,2) eta ostatu-gauetan (437.749; +% 6,6). Balantze positiboaren oinarria estatuko eta nazioarteko segmentuen dinamismoa da, bai bidaiari-kopuruan (+% 7,6 eta +% 6,5), bai ostatu-gauetan ere (+% 6,2 eta +% 7,0), hurrenez hurren. Bidaiarien bi heren espainiarrak dira (% 62,2) eta ostatu-gauen erdia baino pixka bat gehiago osatzen dute (% 57,1). Modu horretan, beraien batez besteko egonaldia (1,69 egun) nazioarteko segmentuarena baino (2,09 egun) pixka bat txikiagoa da.

Bilbok 2025 hasieran 2024ko lehen hiruhilekoan baino bidaiari (+% 7,2) eta ostatu-gau (+% 6,6) gehiago izan ditu

Urteko lehen hiru hilabeteetan, Loiuko aireportuan 1.311.092 bidaiari erregistratu ziren, hau da, urte arteko % 1,0eko hazkundera (12.456 bidaiari gehiago). Halaber, emaitza horren arrazoa nazioarteko osagaia da (+% 5,8). Azken horrek, pisu erabakigarria duen estatuko fluxuaren atzerapena (-% 1,7) konpentsatu du eta erabakigarria da aireportuko merkataritza-jardueraren hiru heren osatzen baitu (% 62,4).

...eta Loiuko % 1,0 gehitu du kudeatutako bidaiari-kopurua

Beste alde batetik, Bilboko portuak 8.159,6 mila tona garraiatu zituen urtarriletik martxora, hau da, urte arteko % 3,9ko jaitsiera gertatu zen. Portu agintaritzak dio, beste arrazoi batzuen artean, AEBko muga-zergen politika dagoela, salgaien trafikoan eragiten baitu.

Urte hasieran behera egin du portuko jarduerak (-% 3,9)

Bizkaiko industria-ekoizpenak urte hasieran (urtarrila-otsaila) nolabaiteko hobekuntza izan du (+% 0,1 urte arteko tasan), eta azken hiru hiruhilekoetako bilakaera negatiboa hautsi du (-% 0,7, -% 1,3 eta -% 0,8, 2024ko bigarren hiruhilekotik laugarrenera), uraren segmentuaren (+% 5,8) eta energia, gasa eta lurrunaren segmentuaren (+% 2,3) laguntzarekin. Horiek konpentsatu egin dute manufakturen industriaren (-% 0,9) eta erauzketa-industriaren (-% 9,9) atzerapena. Eta ekitaldiaren bilakaera nolakoa izan den jakiteko zain gaude, sortutako zalantzagarritasunari (muga-zergak) adi.

... baina industria-jarduera pixka bat hobetu da (+% 0,1 urtarrietik otsailera)

Zerbitzu-sektoreak 2024 bukaeran salmentak gehitu zituen (+% 4,5 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan), jardueraren sustapena ekitaldian zehar jarraitua eta partekatua izan zelako. Jarduera-sektore guztiak hobetu dira eta azpimarratzekoa da ostalaritzaren (+% 5,5 eta +% 3,2) eta jarduera profesionalen eta zientifiko-teknikoen (+% 5,4 eta +% 2,9) dinamismoa, sektorearen batez besteko balioa gainditu zutenak. Azkenik, enpleguaren irabazi garrantzitsua aipatu behar da (+% 0,9 urte arteko tasan 2024an).

... zerbitzu-jardueren salmentak hazten zihoazen (+% 4,5 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan 2024an)

2024an, Bizkaiko BPGd % 2,2 hazi zen eta ekitaldian profila mantendu egin zen (+% 2,5, +% 2,2, +% 2,0 eta +% 2,3 urte arteko tasan lehen hiruhilekotik laugarrenera). Enplegua ere hobetu egin zen (+% 1,8), 494.849 LOB lanpostura iritsiz, serie historikoko zifrarik handiena, lehen aldiz 2008ko erregistroa gaindituz (494.403).

Bizkaia % 2,2 hazi zen (BPGd), milioi erdi lanpostu ingururekin (LOB)

2025eko lehen hiruhilekoko aurrerapen-zifrek diote EAEko BPGd % 2,0 eta % 0,6 hazi zela hurrenez hurren urte arteko tasan eta hiruhileko arteko tasan eta enplegua (LOB) % 1,5 hazi zen. Adierazi dutenez, *"urteko lehen hiruhilekoko hazkundea industriaren urte arteko hobekuntzan eta, bereziki, eraikuntzaren hobekuntzan sostengatzen da"*. Emaitza horiek finkatzeke daude baina Bizkairako erreferentzia dira.

2025eko lehen hiruhilekoan, EAEko BPGd % 2,0 hazi da

Laburbilduz: 2025eko lehen hiruhilekoa bukatzean Bilborako eta Bizkairako eskuragarri dauden datuek bi egitate seinalatzen dituzte: alde batetik, 2024ko balantzea, azkenean, aurreikusitakoa baino hobea izan da (aurreikuspenak gorantz berrikusi dira urtean zehar) eta, beste alde batetik, 2025 hasiera normalizatutako biurteko baten (2023-2024) "atzeko aldeko haizeak" sustatu zuen. Gainera, baieztatu da zerbitzuak (pertsonei eta enpresei ematen zaizkienak) garrantzitsuak direla palanka gisa eta industriaren eta eraikuntzaren trakzio-rola osatzen dute.

Bilboko eta Bizkaiko ekonomian 2025 hasierak enpleguaren fidagarritasuna erakusten du eta epe motz eta luzerako ekonomiaren eta enpresen aurreikuspenen aurreko erantzuna azkarragoa eta sentikorragoa izan da. Baina ekonomia-hazkundearen aurrerapen-datuak 2024ko ibilbidearen barne mantendu arren, agerikoa da zuhurtzia dela nagusi.

Itxaropenak positiboak diren arren...

Aurrekoarekin lotuta, Trumpen administrazioak bere merkataritza-estrategian eta mugazergen politikan sartutako zalantzagarritasuna<sup>3</sup> barne-agenteen<sup>4</sup> erabakiak baldintzatzen ari da. Horrek herrialdearen barne-jarduera aldatuko du eta nazioartean inpaktu handiagoa edo txikiagoa (kanpo-eragileak) izango du merkataritza-harreman zuzenen garrantziaren eta erregistratutako den atzeraemangune ekonomiko potentzialaren efektu atzeratuaren arabera.

... Trumpen administrazioaren mugazergen politiken inpaktuak baldintzatuta

<sup>3</sup>Bereziki seinalatu da Erreserba Federalaren Beige Liburuan (2025eko apirilak 23). 12 distrituetako erreserba federalek egiten dute distritu bakoitzeko ekonomia- eta enpresa-agenteen sareko informazio formala eta informala erabiliz.

<sup>4</sup>Ekonomiaren bilakaerarekiko aurreikuspenak okerragoa dira eta, bereziki, inflazioarenak (Beige Liburua).

## TESTUINGURUA

### Munduko ekonomia

“*Une kritikoa da politikak aldatzen ari diren bitartean*”. Horrela definitu du Nazioarteko Diru Funtsak munduko ekonomia-hazkunderako aurreikuspenak beherantz doitzea justifikatu duen egoera makroekonomiko berria. 2025erako, erakundeak aurreikusi du<sup>5</sup> hazkundera % 2,8koa izango dela. Hau da, aurreko proiektzioa baino 5 hamarren gutxiago (2025eko urtarrilean egin zen) eta 2026rako % 3,0n kokatzen du, urtarrilean baino 3 hamarren gutxiago.

“Merkataritza-gerrak” ekonomia-hazkunderaren aurreikuspenak gutxitzen ditu (+% 2,8 2025erako)

Merkataritza-tentsioak gehitzen ari dira, AEBk muga-zerga berriak iragarri ditu eta bere merkataritza-bazkideek kontraneurriak iragarri dituzte. Horren guztiaren ondorioz, muga-zergen tasa efektiboek mende bat baino gehiagoan gertatu ez diren mailak izan dituzte. NDFren arabera, “*Egoera hori shock negatibo garrantzitsua da hazkunderako eta neurriak aurreikusi ezinezko moduan ezarri dituztenez, horrek inpaktu negatiboa izan du ekonomia-jardueran eta aurreikuspenetan. Hala, ibilbide posible ugari daude zalantzagarritasuna muturrekoa baita eta herrialdeetan muga-zergek askotariko inpaktuak sortzen baitituzte*”.

### Hazkunde ekonomikorako (BPGd) ...(e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	25-urt.		25-api.	
		2025	2026	2025	2026
<b>MUNDUKO BPGd</b>	<b>3,3</b>	<b>3,3</b>	<b>3,3</b>	<b>2,8</b>	<b>3,0</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>1,8</b>	<b>1,9</b>	<b>1,8</b>	<b>1,4</b>	<b>1,5</b>
Ameriketako Estatu Batuak	2,8	2,7	2,1	1,8	1,7
<b>Eurogunea</b>	<b>0,9</b>	<b>1,0</b>	<b>1,4</b>	<b>0,8</b>	<b>1,2</b>
Alemania	-0,2	0,3	1,1	0,0	0,9
Frantzia	1,1	0,8	1,1	0,6	1,0
Italia	0,7	0,7	0,9	0,4	0,8
Espainia	3,2	2,3	1,8	2,5	1,8
<b>Emergenteak eta garatzen ari direnak</b>	<b>4,3</b>	<b>4,2</b>	<b>4,3</b>	<b>3,7</b>	<b>3,9</b>
Txina	5,0	4,6	4,5	4,0	4,0
India	6,5	6,5	6,5	6,2	6,3
Brasil	3,4	2,2	2,2	2,0	2,0
Errusia	4,1	1,4	1,2	1,5	0,9

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Egoera horretan, hurrengo biurtekorako (2025-2026) ekonomia-hazkunderako aurreikuspenen beherapena nagusi da. Ekonomia aurreratuak % 1,5 haziko dira bakarrik eta puntu erdi murriztuko da urtarrileko aurreikuspena (-0,5 ehuneko puntu eta -0,3 ehuneko puntu 2025erako eta 2026rako). Azpimarratzekoa da AEBren hazkunde-aurreikuspenei aplikatutako doikuntza (-0,9 ehuneko puntu eta -0,4 ehuneko puntu) Eurogunearekin alderatuta (-0,2 ehuneko puntu eta -0,2 ehuneko puntu), baina ekonomia estatubatuarra

<sup>5</sup> Munduko ekonomiaren aurreikuspenen eguneraketa (2025eko apirila).

Europakoarekin alderatuta ia bikoitza haziko litzateke (AEB +% 1,8 eta +% 1,7 eta Europa +% 0,8 eta +% 1,2), Alemania ahuldu egin baita (+% 0,0 eta +% 0,9) eta Frantziari (+% 0,6 eta +% 1,0) eta Italiari (+% 0,4 eta +% 0,8) dinamismoa falta zaielako. Espainia egoera horretatik kanpo geratuko litzateke (+% 2,5 eta +% 1,8), profil dinamikoa mantenduz. Ekonomia emergenteek eta garatzen ari direnek hazkundea motelduko lukete, 2025ean % 3,7ra arte eta 2026an % 3,9ra arte (-0,5 ehuneko puntu eta -0,4 ehuneko puntu urtarrilarekin konparatuta), eta hazkundearen beheranzko aurreikuspenak handiak izango lirateke merkataritza-neurri berrien eraginpeko herrialdeetan, adibidez, Txinan (-0,6 ehuneko puntu eta -0,5 ehuneko puntu). Halaber, Errusiaren profila ez da batere dinamikoa (+% 1,5 eta +% 0,9), eta 2024an erregistratutako hazkundearekin kontrastatzen du (+% 4,1).

## Etxeen konfiantza eta aurrezpena

	2022	2023	2024	2024			2025
				II	III	IV	I
<b>Etxeen konfiantza<sup>1</sup> (±100)</b>							
EB-27	-21,7	-17,1	-12,9	-13,1	-12,0	-12,2	-13,3
Espainia	-26,5	-19,2	-15,2	-14,5	-13,7	--	--
<b>Etxeen aurrezpena<sup>2</sup>; Δ urte artekoa %</b>	<b>4,5</b>	<b>-0,4</b>	<b>4,2</b>	<b>4,2</b>	<b>3,4</b>	<b>4,2</b>	<b>4,5</b>

1. Hileko datuen hiruhilekoko batez besteko datua eta hiruhilekoko datuen urteko batez besteko datua. 2024ko urritik aurrera, Eurostatek ez du argitaratu Espainiako daturik. Horrenbestez, 2024ko urteko datua behin-behinekoa da, eskuragarri dauden hiru hiruhilekoen batezbestekoa.

2. Gordailuak. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteko itxierakoa eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.

Iturria: Eurostat eta Espainiako Bankua

Etxeen konfiantza<sup>6</sup> ahultzen ari da (-13,3) eta aurreko hiruhilekoko emaitza okertu da eta bigarren hiruhilekoz jarraian familien konfiantza galdu da. Gehien okertu den osagaia egoera ekonomiko orokorraren inguruko itxaropenak dira. Argi eta garbi ezkorak dira (-25,6) eta lerrokatuta daude ekonomia-jardueraren hazkundea gutxituko duen merkataritza-egoera berriarekin. Halaber, etxeak ezkorak dira erosketa handiak egiteko asmoekiko (-14,0), baina etxearen egoera ekonomikoaren inguruko balorazioa (orainaldikoa eta etorkizuneko, -9,7 eta -3,9) ez da hain negatiboa, pixka bat okertu den arren.

Euskal etxeen konfiantza ahuldu egin da

Lau osagai horiek zehazten dute etxeen ezkortasun goranzkoa, baina aipatu beharra dago osagai batzuetan (ez dira sartu adierazle sintetikoak kalkulatu denean) etxeak baikorrak direla, adibidez, aurrezteko itxaropenetan (+8,7). Emaitza hori koherentea da gordailuetako<sup>7</sup> saldoaren bilakaerarekin. Hobekuntza indartzen du 2025eko lehen hiruhilekoan (+% 4,5) eta 1.027.472 milioi eurokoa izan da.

Gordailuetako saldoa gehieneko historikoetan dago

<sup>6</sup> Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeke etxeen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomiko orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketa handiak kontuan hartzen dira. Analisis EB-27ko datuarekin egin da, Eurostatek ez baitu Espainiaren daturik argitaratzen 2024ko urritik aurrera.

<sup>7</sup>Espainiako etxeetako Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuetako saldoa.

## Euskal ekonomia

Eusko Jaurlaritzak<sup>8</sup> kalkulatu du euskal ekonomia % 2,1 haziko dela 2025ean. Barne-eskaeran sostengatuta dago (+% 2,3) eta horrek kanpo-saldoaren emaitza negatiboa (-% 0,2) konpentsatzen du, nagusiki, esportazioek<sup>9</sup> aurretik ere bazuten beheranzko profilak baldintzatuta. Gainera, AEBk ezarritako inguru protekzionistak inpaktu negatiboa izan dezake eta herrialde horrek EAEko kanpo-merkataritzaren % 6 inguru ematen du.

2025ean euskal ekonomia % 2,1 haziko da

Kontsumoa izango da euskal ekonomiaren hazkunde-palanka nagusia (+% 2,3), enpleguaren ibilbide positiboak (% 1,5 haziko da) eta interes-tasen murrizketak sustatuta. Aurrekoak kontsumoa errazten du aurrezpenaren aurrean eta inbertsioak finantzatzea ere errazten du. Kalkulatu da kapitalaren eraketa gordinean hazkunde handia gertatuko dela (+% 2,6) eta baieztatu da zerbitzuen sektoreak (+% 2,3) mugituko duela jarduera ekonomikoa, industria-jarduera moteldu egin baita (+% 1,1).


## Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(Hiruhilekoko bereizketa)				2025	2026
	25-I	25-II	25-III	25-IV		
<b>BPGd</b>	<b>1,9</b>	<b>2,1</b>	<b>2,1</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>	<b>1,8</b>
Etxeetako kontsumoa	2,4	2,4	2,3	2,0	2,3	1,7
Kontsumo publikoa	1,9	2,1	2,0	1,9	2,0	1,7
Inbertsioa (KEG)	2,2	2,5	2,8	2,8	2,6	2,5
Barne-eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,1	2,3	1,9
Kanpo-saldoaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,1
Lehen sektorea	2,4	1,0	0,5	-1,0	0,8	-0,1
Industria eta energia	0,6	1,2	1,0	1,7	1,1	1,6
Eraikuntza	2,4	3,1	3,1	2,4	2,7	2,2
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,5	2,2	2,3	1,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia Zuzendaritza (2025eko martxoa).

## Euskal ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia Zuzendaritza

<sup>8</sup> Zenbatespen horiek 2025eko apirilaren 3an argitaratu ziren. Nazioarteko giroak konplexutasun berezia du, merkataritza-tentsioak eta geopolitikoak handiak direlako, eta horrela, BPGd-ren hazkunde-aurreikuspenak berrikusiko dira berriro ere.

<sup>9</sup> 2024an euskal esportazioak % 5,4 gutxitu ziren eta 2025ean (urtarrila-otsaila) badirudi egoerak atzera egin duela berriro ere (-% 1,0).

Aurreikuspeneko egoera horretan, euskal ekonomia hazkunde-maila leunean mantentzen da, ekonomia-termometroko<sup>10</sup> adierazleen panelean agertzen denaren antzekoa. Beste alde batetik, euskal enpresek<sup>11</sup> 2025eko bigarren hiruhilekorako dituzten itxaropenak positiboak dira (>50 puntu), eta adierazlearen balioak (58,0) aurreko hiruhilekoko emaitza hobetu du (53,6). Hala ere, zuhurtziaz hartu beharreko emaitza da, kontsulta<sup>12</sup> egin den unean ez baitu egungo egoera islatzen. Hala, hurrengo kontsultako emaitzek zehaztuko dute muga-zergen neurri berriek EAEko enpresen itxaropenetan izan duten inpaktua.

## EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

Egoera berbera gertatzen da euskal etxeen konfiantzarekin. Kontsulta<sup>13</sup> hori egoera ekonomiko berriaren aurretik egin zen. Edonola ere, emaitzak dio euskal etxeen konfiantza pixka bat okertu dela (-2 puntu) eta ezkortasuna mantentzen dela (-4), bereziki, egoera ekonomiko orokorra dela-eta (-19). Horixe da konfiantza ezik handiena sortzen duen adierazlea. Bigarren hiruhilekoko emaitzek frogatuko dute nolakoa den euskal etxeen konfiantzaren joera.

## Euskal etxeen konfiantza

	2022	2023	2024	II	2024	III	IV	2025	I
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-11	-9	-4	-3	-4	-2	-4		

Iturria: Euskal etxeen konfiantza. Laboral Kutxa

<sup>10</sup> Erreferentzia-unearen egoeraren adierazlea: hazkunde irmoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundera (50etik behera).

<sup>11</sup> Inkesta EAEko 404 enpresei egin zitzaizen.

<sup>12</sup> Landa-lana 2025eko otsailaren 7tik 13ra egin zen.

<sup>13</sup> Landa-lana 2025eko otsailaren 10etik 21era egin zen.

## Prezioak eta inflazioa

Inflazioak martxoan azken hilabeteetako hazkunderik txikiena izan du (+% 2,3, +% 2,8 eta +% 2,7, Espainian, EAEn eta Bizkaian), eta berriro hurbildu da lortu nahi den % 2ko atalaserara. Modu horretan, hautsi egiten da 2024ko irailetik gertatzen ari zen goranzko profila. Orduan, inflazioa hasi zenetik gorakada txikiena erregistratu zen (hurrenez hurren, +% 1,5, +% 1,8 eta +% 1,9). Aurreko guztiarekin, gorabehera txiki horiek inflazioa hobetzen doan ibilbidean kokatzen dira eta azpiko inflazioan erregistratutako doikuntza azpimarratzen da (+% 2,0 eta +% 2,5 Espainian eta EAEn).

Martxoan erregistratu da azken hilabeteetako inflaziorik txikiena

EINen arabera, inflazioaren beherakadan gehien eragin duten taldeak hauek izan dira: i) etxebizitza, elektrizitatearen prezioak jaitsi zirelako, ii) garraioa, ibilgailu pertsonaletarako erregaien eta lubrifikatzaileen prezioak jaitsi izanak lagunduta eta iii) aisialdia eta kultura, pakete turistikoaren prezioak gutxiago garestitu zirelako.

## KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

		KPI Orokorra			Azpiko KPI <sup>1</sup>	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2024	urtarrila	3,4	3,5	3,6	3,6	3,8
	otsaila	2,8	3,1	3,3	3,5	3,9
	martxoa	3,2	3,2	3,3	3,3	3,4
	apirila	3,3	3,5	3,6	2,9	3,1
	maiatza	3,6	3,9	4,0	3,0	3,3
	ekaina	3,4	3,5	3,5	3,0	3,0
	uztaila	2,8	2,9	3,1	2,8	2,9
	abuztua	2,3	2,6	2,9	2,7	3,0
	iraila	1,5	1,8	1,9	2,4	2,5
	urria	1,8	2,3	2,3	2,5	2,8
	azaroa	2,4	2,9	2,9	2,4	2,8
	abendua	2,8	3,6	3,6	2,6	3,3
	2025	urtarrila	2,9	3,5	3,4	2,4
otsaila		3,0	3,3	3,1	2,2	2,4
<b>martxoa</b>		<b>2,3</b>	<b>2,8</b>	<b>2,7</b>	<b>2,0</b>	<b>2,5</b>

1. Landu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago Bizkairako eskuragarri.  
Iturria: EIN

Inflazioa Europa osoan moteldu da orokorrean eta antzeko mailak erregistratu dituzte Alemanian, Espainian, Italian eta Suedian eta Frantzia eta Danimarkan % 2ko helburuaren azpikoak izan dituzte. Ildo horretan, honako hau dio Europako Banku Zentralak: *“Inflazioa espero genuen bezala garatu da eta inflazio orokorra eta azpiko inflazioa gutxitu egin ziren martxoan...zerbitzuen inflazioa ere asko moteldu da azken hilabeteetan eta azpiko inflazioaren adierazle gehienek diote inflazioa Gobernu Kontseiluaren helburuaren inguruan egonkortuko dela, hau da, % 2 inguruan, epe ertainean eta modu jarraituan”*. Egoera horrek erreferentziazko interes-tasen beherapen berri bat justifikatu du <sup>14</sup> (-25 puntu oinarrizko) eta 2024ko ekainetik zazpi jaitsiera gertatu dira jarraian.

<sup>14</sup> Europako Banku Zentralaren bilera (2025eko apirilak 17) Diru-politikaren erabakiak.


## EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. Martxoak 2025

	urte arteko tasa		Diferentzia /2024ko abendua (ehuneko puntuak)	
	KPI Orokorra <sup>1</sup>	Azpiko KPI <sup>2</sup>	KPI Orokorra	Azpiko KPI
<b>Eurogunea</b>	<b>2,2</b>	<b>2,5</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,2</b>
Alemania	2,3	2,9	-0,5	-0,4
Frantzia	0,9	1,6	-0,9	-0,3
Espainia	2,2	2,0	-0,6	-0,6
Italia	2,1	1,9	0,7	0,1
Herbehereak	3,4	4,0	-0,5	-0,3
Danimarka	1,4	1,5	-0,4	0,1
Suedia	2,1	2,7	0,5	0,0
<b>EB-27</b>	<b>2,5</b>	<b>2,7</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,2</b>

1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagaiarik eta produktu energetikorik gabeko KPI  
Iturria: Eurostat

Hala eta guztiz ere, erakundeak hau esan du: *“hazkunde-itxaropenak okertu egin dira merkataritza-tentsioak gehitu direlako...zalantzagarrtasun handiago batek etxeen eta enpresen konfiantza murriztu ahalko luke eta baliteke merkatuek merkataritza-tentsioen aurrean emandako erantzun kontrako eta aldakorrak finantzaketa-baldintzak gogortzea”*. Faktore horiek, gainera, Euroguneko itxaropen ekonomikoak oztopatu ditzakete. Horregatik, Europako Banku Zentralak azpimarratu du *“bere ikuspegia datuen arabera dela eta diru-politikaren orientabide egokia zehaztu nahi dela, bereziki, egungo ez ohiko zalantzagarrtasuneko egoeran”*.

## Euriborra, 12 hilabetera (%)



Iturria: Espainiako Bankua

## EAEko BPGd


EAEko jarduera ekonomikoak 2025 hasieran (aurrerapen-datua<sup>15</sup>) izan duen hiruhileko arteko eta urte arteko hazkundea % 0,6 eta % 2,0koa izan da eta, horrela, erregistratutako ibilbidearekin jarraitu da eta horrek erakusten du euskal ekonomiarako hazkunde-mailak finkoak direla. Zehazki, Eustatek hau dio: *“lehen hiruhilekoan gertatutako hazkundea industriaren urte arteko hobekuntzan oinarritzen da eta, bereziki, eraikuntzarenean, aurrerapen-txosten hau egin den unean eskuragarri dagoen ekonomiaren koiuntura-informazioaren arabera”*. Horrekin lotuta, aurrerapen-datuak hamarren bat hobetu du Eusko Jaurlaritzak<sup>16</sup> egindako aurreikuspena. Eraitza hori baieztatzen bada, euskal ekonomiaren erresilientzia indartuko litzateke. Hala eta guztiz ere, zuhurtzia da nagusi AEBko gobernu berriak iragarritako neurrien ondoriozko merkataritza-tentsioen irismen eta inpaktu posibleak ikusirik.

Lehen hiruhilekoan (aurrerapena) euskal ekonomia % 2,0 hazi da (urte artean)

Badirudi enplegua ere hobetu egin dela lehen hiruhilekoan (+% 0,4 eta +% 1,5 hiruhileko eta urte arteko tasetan). Horrek esan nahi du 14.000 lanpostu baino gehiago sortuko liratekeela lanaldi osoaren baliokidetzan, Eustatek argitaratutako aurrerapen-datuekin bat etorritz. Modu horretan, 2024ko laugarren hiruhilekorako eskuragarri dagoen informazioaren arabera (993.320), zenbatetsi daiteke EAEn LOB lanpostuak milioi bat ingurukoak izango liratekeela. Hala, enpleguko gehieneko zifra izango litzateke eta 2008an lortutako gehieneko erregistroa nabarmenki gaindituko luke (zehazki, 989.010 2008ko bigarren hiruhilekoan).

Eta enplegua % 1,5 hazi zen eta milioi bat LOB lanpostu gainditu zituen

## EAEko BPGd



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

<sup>15</sup> Lehen hiruhilekoari dagozkion Hiruhileko Kontu Ekonomikoen aurrerapena (Eustat, 2025eko apirilak 16). Ekainaren 6an argitaratuko dira Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak BPGd-ren bereizitako zenbatespenekin.

<sup>16</sup> Ekonomia Zuzendaritzak, hiruhilekoko aurreikuspenetan (2025eko martxoa) aurreikusi zuen lehen hiruhilekoan urte arteko % 1,9ko hazkunde gertatuko zela. Eustatek argitaratutako aurrerapen-datua baieztatzen bada (+% 2,0), hamarren bat gaindituko litzateke Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspena.

2024rako informazio osoak<sup>17</sup> erakusten du euskal ekonomia % 2,2 hazi zela eta hamarren 1 hobetu zen Eustatek 2025eko urtarrilean egindako aurrerapena. Modu horretan, euskal ekonomiaren dinamismoa indartu da hobekuntzako profil mantendu batekin (+% 2,4, +% 2,1, +% 2,0 eta +% 2,1 urte arteko tasan, lehen hiruhilekotik laugarrenera) eta zerbitzuen sektorearen bultzadak lagunduta. Azken hori 2024an (+% 2,6) jarduera ekonomikoaren multzoa baino (+% 2,2) gehiago hazi zen eta eraikuntza-sektorearen (+% 1,6) dinamismo erlatibo txikiagoa konpentsatu zuen eta, bereziki, industria eta energiarena (+% 1,0). Egiaz, industria-jardueraren profila argi eta garbi beheranzkoa izan zen 2024an (+% 1,7, +% 1,0, +% 0,8 eta +% 0,5 urte arteko tasan lehen hiruhilekotik laugarrenera), eta argi utzi zuen Europako industria ahultzeak tokian duen inpaktua, bereziki, Alemaniako industria ahuldu izanak.

2024 bukaeran, BPGd eta enplegua % 2,2 eta % 1,8 hazi ziren

Beste alde batetik, enpleguaren hobekuntza baieztatu da (+% 1,8), eta urteko balantzea (batezbestekoa) 987.666 lanpostukoa izan da lanaldi osoko baliokidetzan. Urteko daturik onena da eta 3.000 enplegu baino gehiago dira 2008an erregistratu zirenekin (984.541) alderatuta. Gainera, 2024ko hobekuntza jarraitua izan da (+% 2,0, +% 1,9, +% 1,6 eta +% 1,6 urte arteko tasan, lehen hiruhilekotik laugarrenera), eta urte-bukaerako enplegu-mailak (993.320 laugarren hiruhilekoan) urteko emaitza hobetu zuen.

Ekoizpen-sektore guztiak lagundu dute enplegua urte artean hobetzen. Azpimarratzekoa da zerbitzu-sektoreari atxikitako enpleguaren gehikuntza (+% 2,2), zehazki, 714.874 LOB lanpostu (guztien % 72,4). Industria-enplegua gutxiago hobetu zen (+% 0,9), baina 200.000 LOB enplegu baino gehiago (202.177) ematen jarraitzen du eraikuntza-sektorearekin batera (+% 0,2); azken horretan, 58.969 LOB enplegu finkatu dira. Aurreko guztiarekin, azpimarratu beharra dago 2008ko enplegu-zifra gainditzen duen jarduera bakarra zerbitzuak direla (+87.121 LOB enplegu), eta konpentsatu egin dira industria eta energiak (-44.487), eraikuntzak (-36.491) eta lehen sektoreak (-2.996) erregistratutako galerak.

## EAEko BPGd, sektoreen arabera

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2022	2023	2024	2024			
				I	II	III	IV
<b>BPGd</b>	<b>5,7</b>	<b>2,7</b>	<b>2,2</b>	<b>2,4</b>	<b>2,1</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>
Lehen sektorea	2,2	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2
Industria eta energia	3,9	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5
Eraikuntza	5,8	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2
Zerbitzuak	6,7	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7
<b>LOB Enplegua</b>	<b>2,9</b>	<b>1,8</b>	<b>1,8</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>1,6</b>	<b>1,6</b>

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

<sup>17</sup> Hiruhileko Kontu Ekonomikoak, 2024ko laugarren hiruhilekokoak (2025-03-07n argitaratutakoak)


## LAN-MERKATUA

### Afiliazioa

Bilbok afiliatu gehien izan zituen urtea bukatu eta gero, hiribilduan enplegu-zifra mantendu da eta martxoan 199.043 afiliazio zeuden, ia-ia 200.000. Horrek esan nahi du urte arteko hazkundea % 3,8koa izan zela eta irabazi garbiak 7.340 afiliatukoak 2024ko martxoko zifrarekin alderatuta. Gainera, 2022ko eta 2023ko afiliazioen 13.000ko eta 16.000ko zifrak gainditu ziren eta islatu da hiribilduko enplegua hobetzen doala azken urteetan eta 2025 hasieran ere horrela mantendu da.

Bilboko Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egiten jarraitzen du

### Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

### Afiliazioa, araubideen arabera

	2025.03	Δ % hiruhileko artekoa (24ko abendua/)	Δ % urte artekoa(24ko martxoa/)
<b>GUZTIRA</b>	<b>199.043</b>	<b>0,0</b>	<b>3,8</b>
Araubide orokorra	170.036	0,0	4,6
Autonomoak	22.093	-0,2	0,4
Etxeko langileak	6.228	-1,0	-3,9
Beste batzuk	686	-1,7	-5,2

Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliazioek joera ona dute araubide orokorraren dinamismoa (+% 4,6 urte artean; +7.551 afiliazio) eta langile autonomoen araubide bereziaren hazkunde txikia (+% 0,4; +83 pertsona) direla-eta. Horiek etxeko enpleguak (-% 3,9; -256 afiliazio) eta itsasoko eta ikatzaren araubide bereziek (-% 5,2; -38 pertsona) izandako jaitsierak konpentsatu dituzte.

Araubide orokorra erabakigarria da afiliazioaren hobekuntzan

Aurrekoarekin lotuta, araubide-motaren arabera ekarpena mantendu egiten da. Modu horretan, araubide orokorrari atxikitako afiliazioak % 85,4 ematen dio afiliazio guztiari eta langile autonomoen araubide bereziak % 11,1 ematen dio etxeko langileen araubideko ekarpen txikiekin (% 3,1) eta gainerako araubideekin<sup>18</sup> (% 0,3).

Hiruhileko bilakaerari erreparatuz, afiliazioa mantendu egin da abenduko zifrarekin konparatuta (% 0,0). Izan ere, araubide orokorrari atxikitako afiliazioa egonkor mantendu da (+% 0,0; +82 afiliazio) eta konpentsatu egin du pisu erlatibo txikiagoa duten gainerako araubideen jaitsiera txikia.

## Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	2025.03	Δ % hiruhileko artekoa (24ko abendua/)	Δ % urte artekoa(24ko martxoa/)
<b>Lehen sektorea</b>	<b>207</b>	<b>-13,0</b>	<b>-16,9</b>
<b>Industria eta energia</b>	<b>9.107</b>	<b>0,7</b>	<b>3,1</b>
Industria	5.394	2,2	5,6
Energia	1.152	-1,0	1,1
Hondakinak eta ura	2.561	-1,7	-1,0
<b>Eraikuntza</b>	<b>9.437</b>	<b>1,3</b>	<b>2,3</b>
Eraikuntza	3.399	1,7	5,3
Eraikuntza-laguntzailea	6.038	1,0	0,7
<b>Zerbitzuak</b>	<b>180.285</b>	<b>-0,1</b>	<b>4,0</b>
Merkataritza	20.171	-3,3	6,9
Garraioa eta biltegiatzea	10.028	-1,4	7,8
Ostalaritza	11.461	0,0	4,8
Ostatuak	1.952	0,8	5,5
Informazioa eta komunikazioak	11.190	4,6	5,0
Finantza eta aseguruak	7.706	0,8	4,6
Higiezin jarduerak	1.220	-1,0	0,2
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	15.631	0,8	4,1
Administraziokoak eta zerbitzu osagarriak	18.486	0,3	3,1
Administrazio publikoa	12.347	-0,1	-0,9
Hezkuntza	27.145	4,6	5,5
Osasuna	15.068	-4,5	8,5
Gizarte-zerbitzuak	9.988	-4,9	-2,5
Aisialdia eta kultura	4.534	-0,2	4,6
Etxeko langileak	6.661	-1,1	-4,1
Beste zerbitzu batzuk	6.697	0,5	0,7

Oharra: Guztira arteko desberdintasuna sektore-esleipena zehaztuta ez duten afiliazioei dagokie.  
Iturria: Gizarte Segurantzza

<sup>18</sup> Nekazaritza-araubidea eta itsasoko araubidea barne.

Afiliazioa jarduera-sektoreen arabera aztertuta, bilakaerak jokaera dinamikoa izan du orokorrean, salbuespen batzuk kenduta. Zehazki, hazkundeak daude zerbitzu-sektorean (+% 4,0 urte artean; +6.903 afiliazio), eraikuntzan (+% 2,3; +213 pertsona) eta industrian eta energian (+% 3,1; +273). Kontrara, lehen sektoreari atxikitako afiliazioa hutsala da Bilboko ekonomiarako eta jaitsi egin da (-% 16,9; -42 pertsona).

Zerbitzuei, industriari eta energiari eta eraikuntzari lotutako afiliazioa gehitu egin da

Jarduera-adarren arabera analizatuta, emaitza baikorra da eta afiliazioak gehitu egin dira adar guztietan, lau hauetan ez ezik: Administrazio publikoa (-% 0,9), gizarte-zerbitzuak (-% 2,5), etxeko langileak (-% 4,1) eta hondakinak eta ura (-% 1,0). Kontrara, enplegua urte artean hazi dutelako nabarmentzen dira jarduera hauek: garraioa eta biltegiatzeak (+% 7,8), merkataritza (+% 6,9), ostatuak (+% 5,5), informazioa eta komunikazioak (+% 5,0), ostalaritza (+% 4,8), finantza eta aseguruak (+% 4,6), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 4,1), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (+% 3,1), osasuna (+% 8,5) eta hezkuntza (+% 5,5), beste batzuen artean.

Hiruhileko bilakaerari dagokionez, ezberdina izan da. Adibidez, zerbitzuen sektoreko afiliazioa pixka bat gutxitu egin da (-% 0,1) 16 jarduera-adarretako 8tan enplegua galdu zelako eta industria eta energiako afiliazioak (+% 0,7) eta eraikuntzakoak (+% 1,3) gehitu egin ziren, baina ez zuten konpentsatu hiribilduko hirugarren eta lehen sektoreen jokaera okerragoa.

## Benchmarkina. Afiliazioa

	2025.03	Δ % hiruhileko artekoa (24ko abendua/)	Δ % urte artekoa (24ko martxoa/)
Madril	2.392.278	0,0	3,4
Bartzelona	1.241.853	0,3	1,9
Valentzia	468.087	1,0	4,3
Sevilla	415.210	0,3	3,0
Zaragoza	324.685	0,4	2,7
<b>G-5en batezbestekoa</b>	--	<b>0,4</b>	<b>3,0</b>
<b>BILBO</b>	<b>199.043</b>	<b>0,0</b>	<b>3,8</b>
Vitoria-Gasteiz	129.427	-0,1	1,5
Donostia-San Sebastián	126.874	-0,1	1,4
Pamplona-Iruñea	118.427	1,5	3,1
<b>G-3ren batezbestekoa</b>	--	<b>0,4</b>	<b>2,0</b>
<b>G-9ren batezbestekoa</b>	--	<b>0,4</b>	<b>2,8</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
Iturria: Gizarte Segurantzza

Afiliazioaren dinamismoa erreferentzia-hiriburuek partekatu egiten dute eta enplegu-zifra hobetu dute kasu guztietan, orain dela urtebetekoekin alderatuta. Zehazki, estatuko hiriburuetan afiliazioa batez beste % 3,0 igo zen, Valentziak (+% 4,3), Madrilek (+% 3,4), Sevillak (+% 3,0), Zaragozak (+% 2,7) eta Bartzelonak (+% 1,9) emaitza onak izan zituztelako. Halaber, euskal hiriburuetakoko afiliazioa % 2,0 gehitu zen eta Iruñeak (+% 3,1) Gasteizek (+% 1,5) eta Donostiak (+% 1,4) baino joera hobea izan zuen.

Erreferentzia-hiriburu guztietako enplegua dinamikoa da

## Kontratuak

Lehen hiruhilekoan, Bilboko egoiliarren kontratazioak 25.774 izan ziren. Hiruhileko arteko (-% 18,7) eta urte arteko (-% 3,5) murrizketa horrek azken bi urteetako kontratazio zifrarik baxuena seinalatzen du (24.823, 2023ko lehen hiruhilekoan). Emaizta hori koherentea izango litzateke kontratu mugagabeen proportzio handiarekin (% 29,8, 2025eko lehen hiruhilekoan). Lan-erreforma indarrean jarri zenetik, kontratazio guztien % 30-40 inguru dira eta enplegua dutenen lotura finkatzen da eta kontratu berrien oinarri potentziala gutxitzen da.

Lehen hiruhilekoan azken bi urteetako kontratu berrien zifrarik txikiena erregistratu zen

Hiruhileko arteko bilakaera negatiboa da aztertutako aldagai guztietan. Izan ere, orokorrean kontratazioetan dinamikoena den laugarren hiruhilekoarekin konparatzen da. Beste alde batetik, urte arteko bilakaerak emaitza orokorra (-% 3,5) zehazten du, eta azpimarratzekoa da emakumeen kontratazioak (+% 3,2), 25-34 urtekoenak (+% 1,2), industria eta energia sektorekoak (+% 3,6) eta lehen sektorekoak (+% 6,2) hobetu izana, baina ez da nahikoa izan gainerako taldeen murrizketak konpentsatzeko.

Aurreko guztiarekin, emakumeen kontratuen pisua indartzen da (kontratu guztien % 52,3) 35 urtera artekoen taldearekin batera (% 52,3); azken horrek hiribilduko egoiliarrek erregistratutako kontratuen erdia baino gehiago ematen du. Zerbitzuetakoak dira lehen hiruhilekoan egin diren 10 kontratu berrietatik ia 9 (% 86,7).

## Kontratuak

	2024.IV	2025.I	Δ % hiruhileko artekoa (2024ko IV. hiruhilekoaren arabera)	Δ % urte artekoa (2024ko I. hiruhilekoaren arabera)
<b>GUZTIRA</b>	<b>31.683</b>	<b>25.774</b>	<b>-18,7</b>	<b>-3,5</b>
Emakumeak	16.400	13.477	-17,8	3,2
Gizonak	15.283	12.297	-19,5	-10,0
16-24 urtekoak	7.643	5.713	-25,3	-6,9
25-34 urtekoak	9.097	7.769	-14,6	1,2
35-44 urtekoak	6.037	5.101	-15,5	-4,9
45 urtekoak eta gehiagokoak	8.906	7.191	-19,3	-4,6
Mugagabeak	8.582	7.668	-10,7	-3,5
Aldi baterako kontratuak	23.101	18.106	-21,6	-3,5
Lehen sektorea	702	376	-46,4	6,2
Industria eta energia	2.013	2.010	-0,1	3,6
Eraikuntza	972	1.044	7,4	-7,6
Zerbitzuak	27.987	22.340	-20,2	-4,1

Bilbon bizi den populazioak erregistratutako kontratazio berriak.  
Iturria: Lanbide


## Erregistratutako langabezia

Bilbon 21.336 langabe zeuden erregistratuta martxoan. Horrek esan nahi du urte arteko jaitziera % 2,9koa izan dela, iaz baino 627 pertsona gutxiago. Baliteke emaitza horrekin 2024an erregistratutako joera aldatzea. 2024ko lehen hiruhilekoan adierazle horrek gora egin zuen (+% 3,1).

Erregistratutako langabeziak behera egin

Joera ona gizonen kolektiboan gertatu da (-% 3,2; -308 gizon langabe) eta gutxiago emakumeen artean (-% 2,6; -319 emakume langabe). Adin-taldeen arabera, erregistratutako langabezia 25 urte baino gehiagoko kolektibo guztietan gutxitu da (-% 1,5; -% 3,7; -% 3,7, 25-34 urtekoak, 35-44 urtekoak eta 45 urte eta gehiagokoak, hurrenez hurren), eta konpentsatu egiten dute gazteen taldearen igoera arina (+% 1,9). Gainera, langabezia dauden denborari erreparatuz, behera egin du langabeziak kolektibo guztietan, 2 eta 3 urte artean langabe daramatenak salbu (+% 6,5).

## Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Hala eta guztiz ere, hiruhileko arteko bilakaera aurkakoa izan da. Langabezia % 1,3 gehitu zen abenduarekin alderatuta (269 langabe gehiago) eta dinamika hori ohikoa da. Izan ere, abendua hilabete oso positiboa izaten da enpleguan eta erregistratutako langabeziak behera egiten du. Egiaz, hiruhileko gorakada hori abenduko hilabete bat oinarri hartuta zenbatzen da (21.067). Hilabete hori, 2022koarekin eta 2023koarekin batera, 2009tik (22.685 pertsona) erregistratutako urte-bukaerako hiru emaitza onenen artean egon zen.

Gorakada handiagoa izan zen emakumeen artean (+% 2,2), baita 16-24 urtekoen (+% 9,0), 25-34 urtekoen (+2,7%) eta 35-44 urtekoen (+% 0,5) artean ere. Gizonen (+% 0,1) eta 45 urte baino gehiagokoak (-% 0,1) datuak ia ez dira aldatu azken hiruhilekoan.

## Erregistratutako langabezia

	2025.03	Δ % hiruhileko artekoa (24ko abendua/)	Δ % urte artekoa (24ko martxoa/)
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.336</b>	<b>1,3</b>	<b>-2,9</b>
Emakumeak	12.008	2,2	-2,6
Gizonak	9.328	0,1	-3,2
16-24 urtekoak	2.023	9,0	1,9
25-34 urtekoak	3.528	2,7	-1,5
35-44 urtekoak	4.060	0,5	-3,7
45 urtekoak eta gehiagokoak	11.725	-0,1	-3,7
6 hilabetera arte	7.294	6,3	-2,5
6 hilabete eta 1 urte bitartean	2.983	4,1	-1,3
1 eta 2 urte bitartean	3.080	-4,1	-5,2
2 eta 3 urte bitartean	1.788	-1,4	6,5
3 urtetik gora	6.191	-2,0	-5,3
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.534	1,9	-1,8
Langabezia-prestazioa kobratzen du	5.802	-0,5	-5,5

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Langabeziak joera ona izan du erreferentzia-hiriburu guztietan. Hala, erregistratutako langabeziaren urte arteko jaitsierak Bartzelonako  $-2,5\%$  en eta Sevillako  $-7,1\%$  en artean egon dira. Batera, estatuko erreferentzia-hiriburuak (G-5) erregistratu duten langabeziaren batez besteko jaitsiera  $4,4\%$ koa izan da. Euskal hiriburuei dagokienez, Donostian gertatu zen murrizketarik handiena ( $-5,5\%$ ), gero Iruñean ( $-1,9\%$ ) eta Gasteizen ( $-1,3\%$ ). Horrela, langabeziaren batez besteko jaitsiera (G-3)  $2,9\%$ koa izan zen.

## Benchmarkina. Erregistratutako langabezia

	2025.03	Δ % hiruhileko artekoa (24ko abendua/)	Δ % urte artekoa (24ko martxoa/)
Madril	140.249	3,6	-4,0
Bartzelona	63.542	0,1	-2,5
Valentzia	44.752	-3,5	-4,3
Sevilla	56.810	1,3	-7,1
Zaragoza	29.972	3,1	-3,8
<b>G-5en batezbestekoa</b>	--	<b>0,9</b>	<b>-4,4</b>
<b>BILBO</b>	<b>21.336</b>	<b>1,3</b>	<b>-2,9</b>
Vitoria-Gasteiz	14.522	3,3	-1,3
Donostia-San Sebastián	6.615	2,1	-5,5
Pamplona-Iruñea	10.140	0,1	-1,9
<b>G-3ren batezbestekoa</b>	--	<b>1,8</b>	<b>-2,9</b>
<b>G-9ren batezbestekoa</b>	--	<b>1,3</b>	<b>-3,7</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
Iturria: SEPE


## Biztanleria aktiboa

2025eko lehen hiruhilekoan, Eustatek BAiren inguruan argitaratutako datuekin zenbatetsi zen Bilboko egoiliarren artean 190,3 mila pertsona aktibo zeudela. Hau da, urte arteko % 17,4ko hazkundera eta 28,2 mila pertsona aktiboko irabazi garbia. Hazkundera hori gaur egunera arte hiribilduan erregistratu den biztanleria aktiboaren zifrarik handiena izan da. Landunen dinamismo handia (urte arteko +% 15,5; +22,6 mila pertsona) eta langabeena (+% 33,5; +5,6 mila pertsona) erabakigarria izan da emaitza on horretan.

Jarduera-sektoreen arabera, urteko lehen hiruhilekoan erregistratutako hobekuntza orokorra nabarmentzen da. Hala, industrian, eraikuntzan eta zerbitzuetan urte arteko gehikuntzak izan dituzte (hurrenez hurren, +% 13,8, +% 52,8 eta +% 14,1).

Aurreko guztiarekin, hiribilduko egoiliarren langabezia-tasa % 11,7koa da, eta inpaktu handiagoa du gizonengan (% 13,6) emakumeengan (% 10,0) baino. Langabezia-tasa % 52,9koa izan zen.

## Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea



Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

## Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I	% Δ	
					Hiruhileko artekoa	Urte artekoa
<b>Biztanleria aktiboa (milakotan)</b>	<b>179,4</b>	<b>176,7</b>	<b>182,1</b>	<b>190,3</b>	<b>4,5</b>	<b>17,4</b>
Biztanleria landuna (milakotan)	162,6	161,6	160,9	168,0	4,4	15,5
Nekazaritza	0,0	0,0	0,0	0,0	--	--
Industria	14,4	16,5	17,4	18,2	4,6	13,8
Eraikuntza	6,5	10,5	11,3	11,0	-2,7	52,8
Zerbitzuak	141,8	134,7	132,1	138,8	5,1	14,1
Langabeak (milakotan)	16,8	15,0	21,2	22,3	5,2	33,5
<b>Enplegu-tasa (%)</b>	<b>53,4</b>	<b>52,0</b>	<b>51,2</b>	<b>52,9</b>	<b>1,7</b>	<b>2,8</b>
Emakumeak	51,1	49,8	49,9	52,7	2,8	6,9
Gizonak	56,1	54,3	52,6	53,1	0,4	-1,8
<b>Langabezia-tasa (%)</b>	<b>9,4</b>	<b>8,5</b>	<b>11,6</b>	<b>11,7</b>	<b>0,1</b>	<b>1,4</b>
Emakumeak	4,4	8,3	12,1	10,0	-2,1	1,5
Gizonak	13,9	8,8	11,2	13,6	2,4	1,7

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldakuntza-tasa ehuneko puntuetan.  
Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

## MERKATARITZA

Eskuragarri dagoen azken informazioa 2024ko laugarren hiruhilekoa da eta horri esker, Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmenten bilakaeraren balantzea egin daiteke. Hala, 2024an pixka bat hobetu ziren (+% 0,2 prezio arruntetan), ibilgailuen salmenten eta konponketen (+% 13,0) eta txikizkako merkataritzaren<sup>19</sup> (+% 3,8) dinamismoak lagunduta. Hala eta guztiz ere, handizkako merkataritzak emaitza oztopatu zuen (-% 3,2), eta lurraldeko merkataritza-sektorearen benetako jardueraren atzerapen txikia (prezio konstanteetan) baldintzatu zuen (-% 0,1).

2024an, Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmentak gelditu egin ziren (+% 0,2 eta -% 0,1 prezio arruntetan eta konstanteetan)

Hiruhileko bilakaerak urteko aldakortasuna agerian uzten du (-% 1,9, +% 1,5, -% 0,5 eta +% 1,6 urte arteko tasan eta prezio arruntetan, lehen hiruhilekotik laugarrenera), eta jarduera-segmentu bakoitzaren bilakaeran zehazten da. Hala, txikizkako merkataritzak goranzko profil positiboa izan du (+% 2,3, +% 2,4, +% 5,1 eta +% 5,1), ibilgailuen salmentek eta konponketek dinamismoari nolabait eutsi egin diote (+% 17,2, +% 18,9, +% 6,6 eta +% 9,5), baina ez da nahikoa izan handizkako salmenten jaitsiera jarraitua konpentsatzeko (-% 6,2, -% 1,1, -% 4,1 eta -% 1,5).

Aurreko guztiarekin, 2024ko sektore-balantzeak dio lurraldeko merkataritza-jarduera nolabait geratu egin dela (+% 0,2 eta -% 0,1 prezio arruntetan eta konstanteetan), aurreko urteko dinamismoa murrizten baitu (+% 0,6 eta +% 0,5) eta pandemiatik berreskuratzeko faseko erregistroetatik urruntzen baita, hain zuzen ere, 2021ekoak (+% 11,2 eta +% 5,9) eta 2022koak (+% 21,8 eta +% 11,4).

Beste alde batetik, sektore-enpleguak hobetzen jarraitu zuen 2024an (+% 1,6), eta gehikuntza 2023koa (+% 1,9) baino pixka bat txikiagoa izan zen. Hiruhileko profilak dio merkataritza-enplegua hobetzeko ibilbidea pixka bat moteldu egin dela (+% 2,6, +% 1,7, +% 1,4 eta +% 0,5 urte arteko tasan lehen hiruhilekotik laugarrenera).

Sektore-enpleguak hobetzen jarraitu zuen (+% 1,6)

### Merkataritza

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2024.III	2024.IV	2024	2024.III	2024.IV	2024
<b>Merkataritza-salmentak guztira</b>	-0,5	1,6	0,2	-0,5	1,5	-0,1
Ibilgailu motordunak saltz.-konpo.	6,6	9,5	13,0	7,4	8,3	11,7
Handizkako merkataritza	-4,1	-1,5	-3,2	-4,3	-1,0	-3,2
Txikizkako merkataritza *	5,1	5,1	3,8	4,4	4,0	2,8
Elikagaiak	3,2	5,4	4,1	2,7	4,4	3,3
Gainerako produktuak	7,2	4,8	3,4	6,2	3,7	2,2
<b>Landunen indizea</b>	<b>1,4</b>	<b>0,5</b>	<b>1,6</b>	--	--	--

\*Zerbitzugunerik gabeko indize orokorra. Bizkaiko datuak, egutegi-ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaro-efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria. Iturria: Eustat

<sup>19</sup> Zerbitzugunerik gabeko adierazle orokorra. Elikagaien segmentua (+% 4,1) eta ez elikagaiena (+% 3,4) barne hartzen ditu.

2025eko lehen hiruhilekoan, Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmenten hobekuntza moteldu egin zen (+% 2,4 prezio arruntetan), eta jardueraren benetako hazkundera pixka bat negatiboa izan zen (-% 0,3 prezio arruntetan). Emaizta hori elikagaien sektorearen bilakaerak baldintzatzen du (+% 2,3 eta -% 1,0 prezio arruntetan eta konstanteetan) eta ez elikagaien segmentuak salmentak gehitu ditu aldagai bietan (+% 2,5 eta +% 0,9 prezio arruntetan eta konstanteetan). Modu horretan, jarduera nolabait moteltzen egongo litzateke (hurrengo hiruhilekoetan baieztatuko da) eta enpleguaren hobekuntza ere nahiko apala izan da (+% 0,3).

Bizkaiko merkataritza-gune handietako salmentak ere geratu egin dira

## Merkataritza-gune handiak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(prezio arruntak)				(prezio konstanteak)			
	24.II	24.III	24.IV	25.I	24.II	24.III	24.IV	25.I
Salmentak	2,7	5,8	4,3	2,4	-1,4	3,3	1,4	-0,3
Elikagaiak	3,9	5,1	4,9	2,3	-1,2	1,3	1,3	-1,0
Gainerako produktuak	0,5	6,9	3,2	2,5	-2,0	6,3	1,5	0,9
Landunen indizea	0,8	1,3	0,4	0,3	--	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi-ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaro- efektua kenduta. 2021eko oinarria. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak. Iturria: Eustat

Lehen hiruhilekoan 3.395 ibilgailu berri matrikulatu ziren Bizkaian. 2024ko lehen hiruhilekoko emaitza hobetu arren (+% 3,0), aurreko hiruhilekoko zifra altutik urruti geratu da (4.220; -% 19,5); azken horretan, 4.000 unitate baino gehiago saldu ziren eta 2020tik ez zen horrelakorik gertatzen (4.441 saldu ziren laugarren hiruhilekoan). Aurrekoarekin lotuta, badirudi finkatu egin dela matrikulazio berrien hobekuntza-ibilbidea, partikularren segmentuak lagunduta (+% 3,9); azken segmentu horretan, lurraldean matrikulatzen diren 10 ibilgailutik 7 sartzen dira (% 69,8) eta enpresen eta besteen segmentuaren hobekuntza gehitzen zaio (+% 1,0).

Gehitu egin da ibilgailu berrien matrikulazioa Bizkaian (+% 3,0 urte artean)

Gainera, azpimarratu behar da orain dela gutxi (apirilaren 1ean) indarrean sartu zela Eusko Jaurlaritzak sustatutako "Isuri gutxiagoko ibilgailuetarako" laguntza-programa. Aurreikusten da programa horrekin 2.000 ibilgailu ordezkaturiko direla eta inpaktua ziurrenik bigarren hiruhilekotik aurrera egingo diren matrikulazioetan ikusiko da.

## Ibilgailuen matrikulazioa

	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Guztira	3.395	3.061	4.220	3.395	-19,5	3,0
Partikularrak	2.406	2.123	2.693	2.370	-12,0	3,9
Enpresakoak eta beste batzuk	989	938	1.527	1.025	-32,9	1,0

Bizkaiko datuak.  
Iturria: ANFAC

Beste alde batetik, urteko lehen hiruhilekoan, hiribilduko merkataritza-sektoreko afiliazioa 20.171 pertsonakoa zen. Urte arteko hazkundea handia izan zen (+% 6,9) eta hiruhileko arteko atzerapenarekin kontrastatzen du (-% 3,3). Ohikoa izaten da —abenduekin konparatuta zenbatzen da— enpleguak urteko gehienekoak lortzea, nagusiki, Gabonengatik. Aurreko guztiarekin, martxoan 20.000 afiliazioen atalasea finkatu da eta zifra hori azken lau hiruhilekoetan gainditu egin da.

Bilboko merkataritza-sektoreak 2024an baino 1.300 afiliazio gehiago izan ditu (+% 6,9)

Hiribilduko merkataritza-sektoreko lau enplegutatik hiru txikizkako merkataritzakoak dira (14.910 afiliazio), eta 2024ko lehen hiruhilekoarekin alderatuz hobetu den segmentu bakarra da (+% 10,6). Horrela, konpentsatu egin dira ibilgailuen salmentek eta konponketek (-% 3,4) eta handizkako merkataritzak (-% 2,0) erregistratutako galerak. Hiruhileko arteko tasan, hiru azpisektoreek enplegua galdu dute (hurrenez hurren, -% 3,7, -% 3,6 eta -% 1,6). Beste alde batetik, autonomoen enpleguak hiribilduko sektore-afiliazioaren % 25,3 osatu zuen.

## Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	2024.06	2024.09	2024.12	2025.03	2025.03; Δ %	
					hiruhileko artean	urte artean
<b>Afiliatuak<sup>1</sup></b>	<b>20.512</b>	<b>20.181</b>	<b>20.856</b>	<b>20.171</b>	<b>-3,3</b>	<b>6,9</b>
Handizkako merkataritza	4.299	4.266	4.231	4.165	-1,6	-2,0
Txikizkako merkataritza	15.059	14.779	15.488	14.910	-3,7	10,6
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.154	1.136	1.137	1.096	-3,6	-3,4
<b>Enpresak<sup>2</sup></b>	<b>2.370</b>	<b>2.345</b>	<b>2.387</b>	<b>2.350</b>	<b>-1,6</b>	<b>-0,1</b>
Handizkako merkataritza	583	582	572	571	-0,2	-1,9
Txikizkako merkataritza	1.627	1.602	1.654	1.625	-1,8	1,3
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	160	161	161	154	-4,3	-7,2
<b>Soldatapeko batez besteko enplegua<sup>3</sup></b>	<b>6,5</b>	<b>6,4</b>	<b>6,6</b>	<b>6,4</b>	--	--
<b>Enplegu autonomoaren %</b>	<b>25,5</b>	<b>25,7</b>	<b>24,9</b>	<b>25,3</b>	--	--

1. Enplegua, guztira (araubide guztiei dagokiena). 2. Kotizazio-kontuak, araubide orokorreko afiliatorako euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutakoak, kotizazio-kontuen gutzitzaioari dagokionez.  
Iturria: GSDN

Enplegu hori sostengatzen duen enpresa-sarean 2.350 enpresa daude eta profila beheranzkoa da arinki (-% 0,1 urte artean) eta azpisektoreen arabera zehazten da. Azpimarratzekoa da txikizkako merkataritzako enpresa-kopuruak izandako igoera (+% 1,3), baina ez da nahikoa izan handizkako merkataritzako (-% 1,9) eta ibilgailuen salmentak eta konponketak segmentuko (-% 7,2) enpresa-galera konpentsatzeko. Aurreko guztiarekin, sektoreko ekoizpen-sarea bat dator txikizkako merkataritzarekin eta hiribilduan 1.625 enpresa daude. Gainera, enpresen batez besteko tamaina enpresa bakoitzeko 6,4 soldatapeko pertsonena da. Ratio hori pixka bat igotzen ari da eta horrek argi uzten du sektorea berregituratzen ari dela. Enpresa gutxiago daude (bereziki enpresa txikiak), baina langile gehiago dituzte.

Baina enpresa-kopurua geratu egin da (-% 0,1)

## TURISMOA

2025eko lehen hiruhilekoan<sup>20</sup> Bilboko hotel-jarduerak urte arteko hobekuntza handia izan du. Izan ere, bi adierazle nagusiek (bidaiariak eta ostatu-gauak) izan dituzten urte arteko hazkundeak % 7 ingurukoak izan dira. Zehazki, urtarriletik martxora hiribilduko hotel-establezimenduetan 237.315 bidaiari (+% 7,2) eta 437.749 ostatu-gau (+% 6,6) erregistratu ziren.

Bilbok 2025 hasieran 2024ko lehen hiruhilekoan baino bidaiari (+% 7,2) eta ostatu-gau (+% 6,6) gehiago izan ditu

Bidaiari-kopuruan izandako balantze positibo hori estatuko (+% 7,6) eta nazioarteko (+% 6,5) segmentuetan sostengatzen da. Biek ere aipatutako hobekuntzan lagundu dute eta segmentu horretan nagusi da estatuko osagaia (% 62,2). Ostatu-gauei dagokienez, nazioarteko segmentua pixka bat gehiago hazi da (+% 7,0) Espainiakoa baino (+% 6,2). Hala ere, pisu erlatiborik handienekoa da (ostatu-gauen % 57,1). Atzerriko segmentuaren batez besteko egonaldia 2,09 egunekoa da eta estatukoa (1,69 egun) gainditzen du.

Establezimendu-motaren arabera, dinamismo handiagoa gertatu da 3 izarrera arteko hotelen eta pentsioen segmentuan (+% 17,2) 3 izar baino gehiagoko hotelekin alderatuta. Ostatu-gauen urte arteko hazkundea handiagoa izan da (+% 3,6), baina kolektibo horrek osatzen du eskariaren zatirik handiena (ostatu-gauen % 75,7).

### Turismoa


	2024.III	2024.IV	2025.I	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
<b>Ostatu-gauak</b>	<b>705.403</b>	<b>524.585</b>	<b>437.749</b>	<b>-16,6</b>	<b>6,6</b>
3 izar eta gehiagoko hotelak	535.775	385.543	331.382	-14,0	3,6
3 izar baino gutxiagoko hotelak eta pentsioak	169.628	139.042	106.367	-23,5	17,2
Estatukoak	259.820	280.949	249.955	-11,0	6,2
Atzerritarrak	445.583	243.636	187.794	-22,9	7,0
<b>Bidaiariak</b>	<b>344.255</b>	<b>265.845</b>	<b>237.315</b>	<b>-10,7</b>	<b>7,2</b>
Estatukoak	130.418	152.390	147.620	-3,1	7,6
Atzerritarrak	213.837	113.455	89.695	-20,9	6,5
<b>Batez besteko egonaldia</b>	<b>2,05</b>	<b>1,97</b>	<b>1,84</b>	<b>--</b>	<b>--</b>

Batez besteko egonaldia: gauak/bidaiariak (egunak) \*Aldakuntza ehuneko puntuetan.  
Iturria: Eustat

Gainera, azpimarratu behar da bidaiarien eta ostatu-gauen irabazia hilabetez hilabete egiaztatu dela. Urtarrila da jarduera gutxieneko hilabetea eta guztira 66.206 bidaiari (+3.611, 2024ko urtarrilarekin alderatuta) zenbatu ziren, otsailean 77.060 bidaiari (+4.047) eta martxoan 94.049 (+8.183). Patroi berbera errepikatzen da ostatu-gauean. Urtarrilean 120.365 izan ziren (+5.956), otsailean 140.545 (+9.536) eta martxoan 176.839 (+11.578). Horrela, urte-hasiera ona izan da, kontuan hartuta, gainera, emaitza horietan ez dela kontuan hartzen Aste Santuaren efektua.

<sup>20</sup> 2024ko Aste Santuak martxoaren 28tik (Ostegun Santua) apirilaren 1era (Pazko Astelehena) izan ziren. 2025ean, aldiz, apirilean izan ziren oso-osorik (apirilaren 17tik 21era).

## Bidaiariak eta ostatu-gauak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

Erreferentzia-hiriburuak konparatuta, Bilbo gainerakoen gainera dago, taldeko urte arteko bilakaerarik onena izan baitu (+% 6,6) ostatu-gauetan. Hala, estatuko hiriburuak (G-5) % 3,2ko jaitsiera izan dute ostatu-gauetan urte artean. Valentziak (-% 7,9), Zaragozak (-% 5,4) eta Bartzelonak (-% 3,6) emaitza horretan eragin dute eta Madrileko (+% 0,7) eta Sevillako (% 0) ostatu-gauak geratu egin dira.

Bilbok izan du erreferentzia-hiriburuaren artean bilakaerarik onena.

Euskal hiriburuak dagokienez, bakarrik Donostiako ostatu-gauak gutxitu dira aurreko urteko aldi berarekin konparatuta (-% 2,3). Gasteizen eta Iruñean mantendu egin dira (+% 1,1 eta +% 0,9 hurrenez hurren), baina euskal hiriburuaren (G-3) bilakaera negatiboa izan da (-% 0,1).

### Benchmarkina. Ostatu-gauak

	2024.III	2024.IV	2025.I	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madril	5.240.186	5.385.311	4.775.538	-11,3	0,7
Bartzelona	6.175.485	4.964.797	4.580.601	-7,7	-3,6
Valentzia	1.482.195	1.054.360	1.025.006	-2,8	-7,9
Sevilla	1.582.160	1.628.974	1.541.289	-5,4	0,0
Zaragoza	539.128	534.280	432.018	-19,1	-5,4
<b>G-5en batezbestekoa (hiriak)</b>	--	--	--	<b>-9,3</b>	<b>-3,2</b>
<b>BILBO</b>	<b>705.403</b>	<b>524.585</b>	<b>437.749</b>	<b>-16,6</b>	<b>6,6</b>
Vitoria-Gasteiz	270.612	205.599	184.818	-10,1	1,1
Donostia-San Sebastián	698.319	476.989	377.519	-20,9	-2,3
Pamplona-Iruñea	208.036	163.541	128.385	-21,5	0,9
<b>G-3ren batezbestekoa (hiriak)</b>	--	--	--	<b>-17,5</b>	<b>-0,1</b>
<b>G-9ren batezbestekoa (hiriak)</b>	--	--	--	<b>-12,8</b>	<b>-1,1</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
Iturria: Eustat eta EIN

## GARRAIOA

### Aireko garraioa

Loiuko aireportuak 2025 hasieran guztira 1.311.092 bidaiari kudeatu zituen lehen hiruhilekoan. Horrek esan nahi du urte arteko hazkundera % 1,0ekoa izan dela eta irabazi garbia 12.456 bidaiarikoa. Hala eta guztiz ere, seinlatu beharra dago urte arteko aldakuntza hori zenbatzeko oinarri hartzen den 2024ko Aste Santua martxo bukaeratik apiril hasierara izan zela, eta 2025ean ez zela hori gertatu. Jaiak apirilean izan zirenez oso-osorik, konparazioa ez litzateke homogenea<sup>21</sup> izango.

2024an baino bidaiari gehiago egon dira nazioarteko osagaiari esker

Bidaiarien trafikoa hobetu egin da nazioarteko osagaiari esker (+% 5,8). Aurrekoak konpentsatu egiten du Espainiako bidaiarien atzerapena (-% 1,7), eta azken horiek Loiuko aireportuko merkataritza-jardueraren bi heren osatu dute (% 62,4).

Azkenik, Loiun guztira 10.739 hegaldi egin ziren urteko lehen hiruhilekoan, 2024ko lehen hiruhilekoan baino 311 gehiago.

### Aireko garraioa

	2024.III	2024.IV	2025.I.p	% Δ urte artean	Δ % hiruhileko artekoa
<b>Bidaiariak (kop.)</b>	<b>2.017.790</b>	<b>1.599.561</b>	<b>1.311.092</b>	<b>1,0</b>	<b>-18,0</b>
Hegaldi komertzialak	2.015.367	1.596.344	1.308.437	1,0	-18,0
Espainiakoak	1.098.898	931.634	815.954	-1,7	-12,4
Nazioartekoak	916.469	664.710	492.483	5,8	-25,9
<b>Hegaldiak (kop.)</b>	<b>15.014</b>	<b>12.676</b>	<b>10.739</b>	<b>3,0</b>	<b>-15,3</b>


bb: behin-behinekoa  
Iturria: Aena

Hilabetez hilabetez banaketan ikusten da bakarrik urtarrilean (365.944 bidaiari; -% 3,8) 2024an erregistratutako balioak baino txikiagoak erregistratu direla eta nazioarteko osagaiaren hazkundera (+% 2,3) ez da nahikoa izan segmentu nazionalaren jaitsiera konpentsatzeko (-% 6,8). Otsailean, alderantziz, konpentsazio hori gertatu da (414.374, +% 0,9) nazioarteko segmentuari esker (+% 4,4) eta segmentu nazionalak atzera egin du (-% 1,1).

Martxoan, hala ere, segmentu biek Loiuko aireportuko bidaiari-kopurua gehitzen lagundu dute (530.774; +% 4,6), baina nazioarteko kolektiboaren dinamismoa (+% 9,1) nazionalarena baino (+% 1,9) handiagoa izan da.

<sup>21</sup> Zentzuzkoagoa izango da urtarriletik apirilera arteko aldirako egitea.

## Bidaiariak Loiuo aireportuan, hileroko bilakaera



Jatorriaren arabera sailkapena bidaiari komertzialei dagokie. Behin-behineko datuak.  
Iturria: Aena

Erreferentzia-aireportuekin konparatuta ikusten denez, Zaragozak (urte arteko -% 1,3) ez ezik, aireportu guztiek bidaiari-kopurua gehitu dute, baina intentsitate ezberdinetan. Hala, urteko lehen hiruhilekoa aldekoa izan da G-5 estatuko aireportuentzat (+% 6,1) eta euskal aireportuentzat ere bai, hazkunde oso antzekoa izan baitute (+% 6,7 G-3 taldeak).

Hobekuntza hori nabariagoa izan da Valentzian eta Gasteizen. Bidaiari-kopuruan bi zifra haziak izan dituzte (+% 14,3 eta +% 15,4, hurrenez hurren), eta ondoren Sevilla (+% 9,9), Madril (+% 4,5) eta Bartzelona (+% 3,2) daude eta euskal aireportuen artean Donostia (+% 4,7) eta Iruñea (+% 0,1).

## Benchmarkina, bidaiariak aireportuetan

	2024.III	2024.IV	2025.I.p	% Δ urte artean	Δ % hiruhileko artekoa
Madril	18.055.524	16.424.654	15.522.209	4,5	-5,5
Bartzelona	15.859.343	13.085.010	11.806.741	3,2	-9,8
Valentzia	3.263.566	2.500.406	2.432.842	14,3	-2,7
Sevilla	2.321.367	2.324.779	2.253.939	9,9	-3,0
Zaragoza	201.892	165.046	140.059	-1,3	-15,1
<b>G-5en metatua</b>	--	--	--	<b>6,1</b>	<b>-7,2</b>
<b>BILBO</b>	<b>2.017.790</b>	<b>1.599.561</b>	<b>1.311.092</b>	<b>1,0</b>	<b>-18,0</b>
Vitoria-Gasteiz	80.420	60.983	50.992	15,4	-16,4
Donostia-San Sebastián	140.103	107.054	93.279	4,7	-12,9
Pamplona-Iruñea	56.409	53.483	52.480	0,1	-1,9
<b>G-3ren metatua</b>	--	--	--	<b>6,7</b>	<b>-10,4</b>
<b>G-9ren metatua</b>	--	--	--	<b>5,8</b>	<b>-9,5</b>

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.  
bb: behin-behinekoa.  
Iturria: Aena

## Itsas garraioa


Lehen hiruhilekoan, Bilboko portuak 8.159,6 mila tona garraiatu zituen eta urte arteko % 3,9ko jaitsiera erregistratu zuen. Portu Agintaritzak esan zuen dinamismo-galeraren arrazoia, beste batzuen artean, AEBko muga-zergen politika dela. Horren inpaktua nabaritzen hasi dira Bilboko portuko<sup>22</sup> salgaien trafikoan.

Bilboko portuko salgaien garraioak atzera egin du

Salgai-motaren arabera, lehen hiruhilekoko balantzea ezberdina da. Salgai likidoen segmentuaren jardura (urte arteko +% 30,9; +259 mila tona) eta salgai orokorra (+% 5,4; +103,1 mila tona) gehitu egin dira, baina ez dute konpentsatzen salgai likidoen jaitsiera (-% 11,7; -666,7 mila tona), eta azken horiek ia-ia Bilboko portutik mugitzen den salgai guztiaren bi heren osatzen dute.

Halaber, edukiontzietan garraiatutako salgaiak gutxitu egin dira (-% 8,2) edukiontzi-kopurua murriztu delako (-% 10,4) eta ontzi-kopurua gehitu egin da (+% 4,9).

### Salgaien itsas garraioa



Iturria: Estatuko Portuak.

<sup>22</sup> Bilboko portuak uste du muga-zergak "jasangaitzak" direla eta kezka dituzte autoen, petrolioaren edo ardoaren salgaiekin.

## EKONOMIA PRODUKTIBOA

### Barne-produktu gordina

2024an, Bizkaiko BPGd % 2,2 hazi zen EAEko emaitzarekin lerrokatuta (+% 2,2) eta ekitaldian profila mantendu egin zen (+% 2,5, +% 2,2, +% 2,0 eta +% 2,3 urte arteko tasan lehen hiruhilekotik laugarrenera). Hala, 2023ko eta 2024ko ekonomia-hazkundera % 2 baino gehiagokoa izan da eta balio normalizatueta kokatu da, pandemia aurreko garaikoen antzera (+% 2,2, 2019an).

Bizkaian 2024 bukaeran % 2,2ko hazkundera


Enplegua ere hobetu egin zen (+% 1,8), eta 494.849 LOB lanpostu erregistratu ziren: serie historikoko zifrarik onena da eta lehen aldiz gaintu zen 2008ko erregistroa (494.403) eta argi eta garbi pandemia aurreko mailatik gorakoa da (479.098, 2019an), ia milioi erdi LOB lanpostu baitira. Egiaz, laugarren hiruhilekoko datuarekin (498.011 enplegu) —etengabe hobetzen den hiruhileko profilaren laguntzarekin (+% 1,8, +% 1,9, +% 1,7 eta +% 1,7 urte arteko tasan lehen hiruhilekotik laugarrenera)—, 2025ean atalase horretara iristea posible izango litzateke.

8.500 LOB enplegu baino gehiago sortu dira

2025eko lehen hiruhilekoko aurrerapen-zifrek<sup>23</sup> diote EAEko BPGd % 2,0 eta % 0,6 hazi zela hurrenez hurren urte arteko tasan eta hiruhileko arteko tasan. Adierazi dutenez, "urteko lehen hiruhilekoko hazkundera industriaren urte arteko hobekuntzan eta, bereziki, eraikuntzaren hobekuntzan sostengatzen da". Bestalde, kalkulatu da enpleguaren (LOB) urte arteko hazkundera % 1,5ekoa izango dela eta zenbatetsitako irabazi garbia 14.000 enpleguakoa. Emaitza horiek finkatzeke daude, baina Bizkaiko erreferentzia dira.

2025eko lehen hiruhilekoan, EAEko BPGd % 2,0 hazi da

### Bizkaiko BPGd



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta Hiruhileko kontuak). Urteartotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

<sup>23</sup> 2025eko apirilaren 16an argitaratu ziren. Hiruhileko Kontu Ekonomikoen (Eustat) emaitzak ekainaren 6an argitaratuko dira.

## Industria

Bizkaiko industria-ekoizpenak urte hasieran (urtarrila-otsaila) nolabaiteko hobekuntza izan du (+% 0,1 urte arteko tasan), eta azken hiru hiruhilekoetako bilakaera negatiboa hautsi du (-% 0,7, -% 1,3 eta -% 0,8, 2024ko bigarren hiruhilekotik laugarrenera), uraren segmentuaren (+% 5,8) eta energia, gasa eta lurrunaren segmentuaren (+% 2,3) laguntzarekin. Horiek konpentsatu egin dute manufakturen industriaren (-% 0,9) eta erauzketa-industriaren (-% 9,9) atzerapena. Hala eta guztiz ere, beharrezko zuhurtziarekin jardun behar da, ikusita AEBk sortutako muga-zergen zalantzagarritasunak ekonomia-jardueran eta, bereziki, industrian sor dezakeen inpaktua.

Hasiera positiboa izan du Bizkaiko industria-jarduerak, baina AEBko muga-zergen inpaktuaren zain gaude.

## Industria

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %				
	2024.I	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I.p
<b>Ekoizpen-tasa</b>	<b>0,6</b>	<b>-0,7</b>	<b>-1,3</b>	<b>-0,8</b>	<b>0,1</b>
Manufakturen industria	1,5	-0,2	-0,4	-1,4	-0,9
Erauzketa-industriak	-20,0	-26,2	-18,1	5,3	-9,9
Energia, gasa eta lurruna	-3,4	-6,4	-13,1	5,0	2,3
Ura	-0,4	2,6	-2,1	1,4	5,8

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. 2021eko oinarria. Erreferentziako aldiko agregazio-indizearen urtetik urterako aldakuntza. 2025eko lehen hiruhilekoko behin-behineko datuak, urtarriletik otsailera artekoak.  
Iturria: Eustat

## Merkatuko zerbitzuak

Zerbitzu-sektoreak 2024 bukaeran salmentak gehitu zituen (+% 4,5 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan), jardueraren sustapena ekitaldian zehar jarraitua eta partekatua izan zelako. Jarduera-sektore guztiak hobetu dira eta azpimarratzekoa da ostalaritzaren (+% 5,5 eta +% 3,2) eta jarduera profesionalen eta zientifiko-teknikoen (+% 5,4 eta +% 2,9) dinamismoa, sektorearen batez besteko balioa gainditu zutenak. Azkenik, enpleguaren irabazi garrantzitsua aipatu behar da (+% 0,9 urte arteko tasan 2024an).

Zerbitzuek salmentak hobetu zituzten 2024an (+% 4,5 eta +% 2,1 prezio arruntetan eta konstanteetan)

## Merkatuko zerbitzuak

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(prezio arruntak)			(prezio konstanteak)		
	2024.III	2024.IV	2024	2024.III	2024.IV	2024
<b>Salmentak guztira</b>	<b>2,8</b>	<b>5,9</b>	<b>4,5</b>	<b>0,8</b>	<b>3,4</b>	<b>2,1</b>
Garraioa eta biltegiatzea	1,6	7,9	3,2	-0,2	6,1	1,7
Ostalaritza	4,8	4,8	5,5	3,0	2,7	3,2
Informazioa eta komunikazioak	1,5	3,8	3,9	-0,3	1,5	1,7
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta tekn.	3,8	5,4	5,4	1,7	2,7	2,9
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	2,5	8,0	5,2	-0,2	2,8	1,0
<b>Landunen indizea</b>	<b>0,4</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>--</b>	<b>--</b>	<b>--</b>

Bizkaiko datuak (2021eko oinarria); egutegiaren, enpleguaren (urtaro efektua kenduta) eta behin-behinekoen ondorioak zuzenduta uneko urterako.  
Iturria: Eustat

## Kanpo-merkataritza

Urtariletik otsailera Bizkaiko enpresen esportazio-bolumena 979 mila tonakoa izan zen eta guztira 1.730,5 milioi euro izan ziren. Horrek esan nahi du, hurrenez hurren, urte arteko jaitsiera % 18,7koa eta % 9,0koa izan zela. Gainera, inportazioak 2.803,8 mila tonakoak eta 2.518,4 milioi eurokoak izan ziren eta 2024ko aldi berarekin konparatuta, jaitsierak % 5,4 eta % 3,8koak izan ziren.

Bizkaiko esportazioak eta inportazioak gutxitu egin dira

Alderantziz, energia-efektua kendu eta gero, bilakaera positiboa da bolumenean eta balioan negatibo mantendu da. Hala, esportazioak 695,1 mila tonakoak eta 1.581,8 milioi eurokoak izan ziren (+% 0,9 eta -% 0,1 urte artean, hurrenez hurren) eta inportazioak 895,2 mila tonakoak eta 1.417,6 milioi eurokoak (+% 1,4 eta -% 0,4) izan ziren.

Bilakaera desberdin horrek (moneta-balioa eta bolumena) argi uzten du prezioen igoerak izan duen eragina, esportatutako (1.580 eurotik 1.768 eurora) eta inportatutako (883 eurotik 898 eurora) tona bakoitzeko batez besteko prezioan igoera handia egon baita 2024ko bihileko berdinarekin erkatuta. Bestalde, jarduera ez-energetikoaren batez besteko prezio handiagoa nabarmendu behar da, batez ere, esportazioen segmentuan (2.279 euro); lurraldeko manufakturen industriak sortutako balio erantsia berresten da horrela.

### Kanpo-merkataritza; moneta-balioa eta bolumena.


	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I <sup>1</sup>	Urte arteko Δ (%)	
					2024.IV	2025.I <sup>2</sup>
<b>Bolumena (milaka tona)</b>						
<b>Esportazioak, guztira</b>	2.098,4	1.862,7	1.651,0	979,0	-21,1	-18,7
Esportazio ez-energetikoak	1.176,6	1.070,8	1.011,2	695,1	-14,7	0,9
<b>Inportazioak, guztira</b>	4.922,8	4.265,5	4.411,2	2.803,8	10,7	-5,4
Inportazio ez-energetikoak	1.345,0	1.301,6	1.258,2	895,2	7,6	1,4
<b>Balioa (milioi euro)</b>						
<b>Esportazioak, guztira</b>	3.345,1	2.819,0	2.817,4	1.730,5	-8,6	-9,0
Esportazio ez-energetikoak	2.736,2	2.326,4	2.486,6	1.581,8	-0,4	-0,1
<b>Inportazioak, guztira</b>	4.264,8	3.745,5	3.617,6	2.518,4	0,5	-3,8
Inportazio ez-energetikoak	2.234,7	2.142,4	1.968,5	1.417,6	0,8	-0,4

Bizkaiko datuak. 1. Urtarileko eta otsaileko behin-behineko datuak. 2. Iazko urtarrila-otsailarekin alderatuta  
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Aurreko guztiarekin, Bizkaiko kanpo-merkataritzaren saldoa urtariletik otsailera defizitarioa izan da berriro ere (-787,9 milioi euro), baina energia-osagaia kenduta positibo bihurtzen da (+164,2 milioi euro), esportazio ez energetikoen pisu handiagoa dela-eta.

Beste alde batetik, atxikitako grafikoak argi erakusten du jarduera ez energetikoak esportazioen eta inportazioen balioan duen garrantzia (% 91,4 eta % 56,3), bolumenean ekarpena gaituz (% 71,0 eta % 31,9, hurrenez hurren).

## Esportazio eta inportazio ez energetikoen ratioa




Bizkaiko datuak. 2025eko lehen hiruhilekoko behin-behineko datua, urtaril-otsailari dagokiona.  
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Azkenik, Bizkaiko kanpo-jardueraren ratioa BPGd-rekin alderatuta % 22,7koa da 2024ko laugarren hiruhilekoan (eskuragarri dagoen azken datua) eta 2020tik aurrerako (% 21,8) baliorik txikiena da. Ematza horrek argi erakusten du esportazioen bilakaera erlatibo ( $-% 4,6$ , 2024an) okerragoa izan dela lurraldeko jarduera ekonomikoarekin alderatuta ( $+% 2,2$ ).

Gainera, datu horiek oraindik ez dute aintzat hartzen AEBk ezarritako muga-zergen inpaktua. Herralde horrek Bizkaiko esportazio eta inportazioen % 7 eta % 9 osatzen du. AEBra esportatzen diren produktu nagusiak erregai mineralak, makinak, indarra sortzeko ekipoak eta makina eta gailu elektrikoak dira eta inportazioak erregai mineralak, haziak eta fruitu koipetsuek osatzen dituzte. Talde horietan, AEBko merkatu-kuota % 13koa da.

## Esportazioen ratioa BPGd-rekin alderatuta (%).



Bizkaiko datuak  
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoetako kontuak (Eustat, 2022ko oinarria)


## ENPRESA-JARDUERA

### Sozietate berriak

Sozietate berrien sorrerak gora egin du lehen hiruhilekoan eta azken urteetako hiruhileko daturik onena erregistratu da (260 sozietate berri) eta asko hobetu dira 2024ko zifrak (+% 22,6 eta +% 12,6 hiruhileko eta urte arteko tasetan). Sortu diren enpresa gehienak zerbitzuetakoak dira (% 81,5), eta 200 sozietate berri baino gehiagorekin, hiribilduko ekoizpen-sarearen trakzio-sektorea da.

2025 hasieran 260 sozietate berri sortu dira hiribilduan

### Merkataritza-sozietate berriak



Iturria: Merkataritza-erregistroa

### Merkataritza-sozietate berriak

	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
<b>Sozietate berriak</b>	221	200	212	260	22,6	12,6
Lehen sektorea	0	0	1	4	300,0	--
Industria eta energia	11	8	8	12	50,0	-47,8
Eraikuntza	20	23	29	32	10,3	60,0
Zerbitzuak	190	169	174	212	21,8	12,8

Iturria: Merkataritza-erregistroa

Zehazki, sozietate berri gehien sortu diren jarduera merkataritza eta konponketak izan da (45 sozietate berri), gero jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (39), eraikuntza (32) eta, azkenik, ostalaritza (30). Lau jarduera horiek hiribilduan sortutako sozietateen erdia baino gehiago (% 56,2) osatzen dute.

## Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2025eko lehen hiruhilekoa)

Merkataritza eta konponketak	45
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	39
Eraikuntza	32
Ostalaritza	30

Iturria: Merkataritza-erregistroa

## Desegindako sozietateak

Kontrako alderdia desegindako sozietateek osatzen dute. 2024an baino gehiago diren arren (+% 26,4 eta +% 3,7 hiruhileko eta urte arteko tasetan), hiribilduko ekonomia-sarearen saldo garbia positiboa izan da. 2025eko lehen hiruhilekoan sozietate gehiago sortu dira (260) desegin (139) baino. Ekoizpen-sektore guztiek saldo garbi positiboa izan dute eta zerbitzu-sektorearen emaitza azpimarratu behar da, ia 100 enpresa berri baititu ekoizpen-sarean (saldo garbia 98 enpresakoa da). Beste alde batetik, desegite gehien izan dituzten bi jarduerak sozietate berri gehien erregistratu dituztenak izan dira. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (30 sozietate deseginda) eta merkataritza eta konponketak (18 sozietate deseginda), baita finantza- eta aseguru-alorretako jarduerak (14) eta higiezin jarduerak ere (13).

Eta 139 enpresa desegin dira eta hiribilduko saldo garbia positiboa da

## Desegindako sozietateak

	2024.II	2024.III	2024.IV	2025.I	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
<b>Desegindako sozietateak</b>	<b>74</b>	<b>76</b>	<b>110</b>	<b>139</b>	<b>26,4</b>	<b>3,7</b>
Lehen sektorea	0	0	0	3	--	--
Industria eta energia	5	4	4	10	150,0	42,9
Eraikuntza	9	7	9	12	33,3	-50,0
Zerbitzuak	60	65	97	114	17,5	10,7

Iturria: Merkataritza-erregistroa

## Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2025eko lehen hiruhilekoa)

Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	30
Merkataritza eta konponketak	18
Finantza- eta aseguru-jarduerak	14
Higiezin jarduerak	13

Iturria: Merkataritza-erregistroa

## 2025eko I. hiruhilekoa

	Azken datua	Adierazleak Δ Urte artekoa (%)	Aldia
<b>LAN-MERKATUA</b>			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	190,3	17,4	I. hiruhilekoa
Biztanleria landuna (milakotan)**	168,0	15,5	I. hiruhilekoa
Langabeak (milakotan)**	22,3	33,5	I. hiruhilekoa
Langabezia-tasa (%)**	11,7	1,4*	I. hiruhilekoa
Langabe erregistratuak (pertsona-kop.)**	21.336	-2,9	martxo
Afiliatuak (kop.)	199.043	3,8	martxo
Erregistratutako kontratuak (kop.) **	25.774	-3,5	I. hiruhilekoa
<b>MERKATARITZA</b>			
Afiliatuak	20.171	6,9	martxo
Kontsumoko prezioak (indizea)***	117,9	2,7	martxo
<b>TURISMOA</b>			
Ostatu-gauak (kop.)	437.749	6,6	I. hiruhilekoa
Bidaiariak (kop.)	237.315	7,2	I. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaiariak)	1,84	-0,01*	I. hiruhilekoa
<b>GARRAIOA</b>			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.159.550	-3,9	I. hiruhilekoa
Bidaiariak airez garraiatzea	1.311.092	1,0	I. hiruhilekoa
<b>ENPRESA-JARDUERA</b>			
Industria-ekoizpena (indizea)**	209,6	0,1	urtarrila-otsaila
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	260	12,6	I. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	139	3,7	I. hiruhilekoa

\* Ehuneko puntuak.

\*\* Bilboko egoiliarak.

\*\*\*Bizkaiari dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentzia-aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.